

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2007ko UZTAILA

Euskal AEko industria %1,3an murriztu zen 2007ko uztailean


Urteko lehen zazpi hilabeteetan %3,7ko hazkunde metatua izan da, 2006ko aldi beraren aldean

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2007ko uztailean, lan egutegiko termino homogeneotan %1,3an murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2006ko hil beraren aldean. Urteko lehen zazpi hilabeteetan %3,7ko hazkunde metatua egon da, 2006ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2007ko uztailean %4,3an murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Industri jardueraren balantzea urteko lehen zazpi hiletan urte arteko %3,7ko hazkundearekin ixten da; ekipoko eta bitarteko ondasunek jokaera azpimarragarria izan dute; berriz, energiako sektorean eta kontsumoko ondasunenean tasa negatiboak izan dira (batez ere kontsumo ez iraunkorraren ondasunetan).

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2007ko uztaileko urte arteko hazkunde zuzendua
Iturria: Eustat.

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreka, eta industri sektore handien sailkapenetik, 2007ko uztaileko indizearen bilakaeran, 2006ko uztailaren aldean, hazkundea Ekipoko ondasunetan bakarrik dauka (%3,3). Bitarteko ondasunetan (%-2,1) eta Energiaren (%-2,8) jaitsiera dugu eta

baita Kontsumoko ondasunetan ere (%-7,3), kontsumo iraunkorraren ondasunetan (%-8,0) eta ez-iraunkorretan (%-7,0) izandako jaitsierengatik.

2007ko uztaileko hil arteko aldakuntzak negatiboak izan dira 2007ko ekainaren aldean industri sektore handi guztientzat: Energian %2,8ko jaitsiera dugu; Ekipoko ondasunetan %3,2koa; Bitarteko ondasunetan %3,7koa; eta Kontsumoko ondasunetan %5,3koa, ekainaren aldean Kontsumo-ondasunen osagaien artean, Kontsumo-ondasun iraunkorrek %8,6ko hil arteko jaitsiera izan dute eta Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %3,6koa, ekainaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak joera ezberdinak izan ditu: Gipuzkoan %0,6 hazi da, eta Bizkaian (%-0,7) eta Araban (%-5,9) jaitsi egin da. Arabako datu zuzenduek Gasteizko Santio festa egunaren ondorioak jasotzen dituzte, 2007ko uztailean.

Hil arteko tasak, 2007ko uztaila ekainaren aldean, negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %7,9 murriztu dira, %3,5 Bizkaian eta Gipuzkoan %3,2.

Taula: 2007ko UZTAILA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzio Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Uzt07 / Uzt06	At / At-1 (1)	Uzt07 / Eka07	Eka07 / Mai07
Indize orokorra: Euskal AE	-1,3	3,7	-4,3	1,6
Araba	-5,9	2,2	-7,9	3,7
Bizkaia	-0,7	3,5	-3,5	1,4
Gipuzkoa	0,6	4,9	-3,2	0,8
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-7,3	-3,2	-5,3	2,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,0	-0,8	-8,6	1,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-7,0	-4,3	-3,6	2,3
Ekipo-ondasunak	3,3	8,0	-3,2	1,3
Bitarteko ondasunak	-2,1	4,6	-3,7	0,4
Energia	-2,8	-2,7	-2,8	6,5

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko t-1 aldi beraren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxe: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp